

SERANTES KULTUR ARETOA AUTONOMIADUN ERAKUNDEAREN ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN SAIOAREN AKTA

2017ko UZTAILAREN 18ko SAIOA

Santurtziko udaletxearen batzorde aretoan arestian aipatutako eguneko hamaikak direnean, Autonomiadun Erakundearen Artezkaritza Kontseiluak ohiko bilera egin du, Presidente jaunak alde zuzenetik deituta. Bileran hurrengo hauek hartu dute parte:

Kontseiluburua: Danel Bringas Egilior jn.

Bertaratutako bokalak:

Itsazain Ortolatxipi Ibáñez jn., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Sonia Cadau Gutierrez Barquínand., Eusko Abertzaleak Udal Taldea.

Daniel Urkiaga Alberdi jn., Sí Se Puede Santurtzi Udal Taldea

Endika García Saez jn., Bildu Udal Taldea.

Pedro Miguel Lucena Balda jn., Euskal Sozialistak Udal Taldea

Zuzendaria: Carlos Morán Arostegi jn.

Kontu hartzailea: José Miguel Paredes Cisneros jn.

Idazkari eskuordetua: José Fernando García Pañeda jn.

Komunikazio arduraduna: Margarita Olabarrieta Sobera

Kontseiluburu jaunak bilerari hasiera eman dio, eta deialdiaren zerrendako gaiak jorratzen hasi dira.

1. 2017ko MAIATZAREN 30eko BILERAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Kontseiluburu jaunak azaldu du ezin izan dela audioa igo, Udaleko beste autonomiadun erakunde batzuei ere eragin dieten arazo teknikoak direla-eta. Autonomiadun Erakundeko idazkaria informatikariekin jarriko da harremanetan arazoa konpontzeko; hortaz, akta formatu berarekin jarraituko da.

Artezkaritza Kontseiluak 2017ko maiatzaren 30ean egindako ohiko saioko akta onartu du. Euskal Sozialistak Udal Taldeko ordezkariak abstentzioa agertu du.

2. AURREKONTUAREN 2017ko EKAINAREN 30era ARTEKO EGOERAREN BERRI EMATEA.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundeak aurrekontuaren 2017ko ekainera arteko (berau barne) betetze-maila zein den jakinarazi du,

eta alderdi azpimarragarrienak nabarmendu ditu Artezkaritza Kontseiluko kideei alde zuzenetik emandako dokumentazioarekin bat etorriz.

Gai horrekin lotutako beste inongo parte hartzerik egon ez dela ikusita, Artezkaritza Kontseilua gaiaren jakinaren gainean geratu da.

3. AUTONOMIADUN ERAKUNDEARI BURUZKO INFORMAZIOA.

Kontseiluburu jaunak autonomiadun erakundearen jarduerarekin zerikusia duten zenbait gairen gaineko informazioa eman du

4. GALDE-ESKEAK

Urkiaga Alberdi jaunak galdetu du Serantes Kultur Aretoaren webgunean zergatik ez dagoen 2016ko Oroi Txostena.

Kontseiluburu jaunak egindako galderen erantzunak eman ditu.

Grabazioa honako helbide honetan dago:
<https://owncloud.santurtzi.eus/index.php/s/J7nyYRKtmIRjgnx>

Beste gairik egon ez denez, Kontseiluburu jaunak batzarra amaitutzat eman du akta honen hasieran zehaztutako egunean, goizeko hamaikak eta hamabost minutu direnean. Eta nik, idazkari eskuorde naizen honek, hau guztiau ZIURTATU egiten dut.